

EUSKARA. 750 eta 1.500 euro arteko isunak ezarri dizkiete, Baionako geltokiko seinale nagusia kentzeagatik



GAIZKA IROZ

BULTZAKA EPAIGELATIK KANPORA. Poliziek auzitegi barnean zeudenak bultzaka eta gorputz osoan joka kanporatu zituzten. Gasa ere bota zuten sarrera nagusira. Argazkiaren, besteak beste, Mertxe Colina ABko Idazkaritzako kidea ageri da.

Poliziak 15 lagun zauritu ditu Demo eta Zuzen taldeko kideen kontrako epaiketan, Baionan

Txomin Peillen euskaltzaina eta gazte bat larri eraman dituzte ospitalera; epaileak euskaraz deklaratzeko galarazi zien auzipetutako bi demokideei



GAIZKA IROZ

EUSKALTZAINA LARRI. Txomin Peillen euskaltzaina, auzitegi kanpoan, arnasa hartzeko zailtasunekin. Ospitalera eraman behar izan zuten.



GAIZKA IROZ

ODOLETAN. Poliziaren kolpeen ondorioz, batek baino gehiagok isuri zuten odola eta kaska ugari izan zituzten gorputz osoan.

E. Bidegain - A. Renteria | BAIONA

Epaileak bertze kasuetako akusatuak abisatuak zituen, pazientzia har zezaten. Lehen auzia, bi demorena eta Zuzeneko bi kiderena, luze joan zitekeela bazekien —Baionako SNCFren geltokiko izenburu nagusia kentzeagatik epaitu zituzten—. Ez, ordea, defentsak galdetu 46 lekukoen entzuteak denbora asko galdeginen zuela uste zuelako; ez zuen bakar bat ere entzun nahi izan. Gorka Leizeaga eta Jose Lucas Zuzeneko kideek itzultzailea zuten. Abokatuak itzultzailea Gorka Torre eta Mirentxu Doihenart demoentzat ere izan zedin eskatu zuen. Erantzuna: ezetz, «frantsesez badakitela».

Zuzeneko kideak hasi ziren deklaratzeko. Euskaraz. Jose Lucasek euskararen egoera salatu zuen. Epaileak hitza moztu zion, galdera errepikatuz: «Parte hartu al zenuen urriaren 13an, Baionako geltokiko seinale nagusiaren ebasketan?». Akusatuaren erantzuna: «Prest nago deklaratzeko, demoei ere onartzen bazaie guk daukagun eskubidea», hots, euskaraz deklaratzekoa. Epaileak galdera errepikatu zuen; Lucasek berriz erantzun bera. Gauza bera Gorka Leizeagarekin. Epaileak hitza erregulariki moztu zion, auziaren funtsa, euskararen egoeraren larritasuna salatzen ekintza izatea, entzuteari uko eginez. Azkenean, ez zuen erra-terko zuena bukatzen utzi.

Epailea: «Frantsesez badakizu»

Gorka Torreren txanda. Euskaraz hitz egin nahi zuen. Epaileak, haserre, ez zuen onartu. «Frantsesez badakizu». Torrek frantsesez hitz egin zuen, lasai-lasai, bere argudioez ziur. «Arazoa ez da frantsesez dakidan ala ez. Gaztelaniaz eta ingelesez ere badakigu. Euskal Herriko hizkuntza, gure ama hizkuntza, ezin erabiltzea da onartezina». Epaileak, naturaltasun osoz: «Errepublikako hizkuntza frantsesa da». «Baina ez dago euskara erabiltzea debekatzen duen testurik», ihardetsi zuen Torrek. Eztabaida bizi-bizi jarri zen. Bukaeran, Torre euskaraz hitz egiten hasi zen, eta epailea, segidan, haserre jarri eta gela hutsarazi zuen.

Piarres Xarriton euskaltzaina zutitu eta protestaka hasi zen. Poliziak lau akusatuak ostikoka igorri zituen kanpora. Ondotik, barnean lurrean jarririk zeuden euskaltzaleak, herrestan eta ostikoka, garrasien artean, eskuak borrararekin joz, kanporatu zituzten. Auzitegiko sarrera gasez bete zegoen jada. Alabaina, kanpoaldeko istiluak lehenagotik hasiak ziren.